

# ZUK

# HORRELA

# JARRAI ...

## LASAI, LASAI

## KEZKATU GABE ...

**ZUK HORRELA JARRAI. LASAI, LASAI. KEZKATU GABE ...**Zuri zer inporta zaizu ba, prezioak goratu egin direla, bizimodua egunetik egunera garestitzen ari dela, bisigu kiloa 1.500 pezetatan zegoela Eguberrietan Iruñeko Azokan, almejak 3.000 pezetatan kiloa ... Eta zuri zer? Zuk horrela jarrai. Zu lasai, kezkatu gabe.

**ZUK HORRELA JARRAI. LASAI, LASAI. KEZKATU GABE ...** Sal-tzen dizuten janaria, jakia, garestia izanez gainera, benenoa eta pozoinaren parekoa dela; eta zuri zer? Zer inporta zaizu ba, "Koltza" olioak 200-dik gora pertsona hil dituela, eta "koltza" olioak dakarren gaitzaz 15.000 pertsona jota daudela; eta Bartzelonako Udaletxeak egindako analisis batean, analizatutako 8.000 produktotatik ia erdiak kontaminatuak zeudela,



kutsatuak zeudela: %40 esnekietan, %29 arrainetan, %40 haragietan, %39 krustazeotan (hauetan gainera, azido borikoa erabiltzen dute, Europa guztian debekatua egon eta Espainian autorizatua dagoena), %10 ogietan, %20 ardoetan. Portzentaia hauetan zeuden kontaminatuak kutsatuak Bartzelonan analizatutako 8 000 produkto horiek ... Eta zuri zer inporta zaizu, e?. Zuk horrela jarrai Lasai, lasai



**ZUK HORRELA JARRAI. LASAI, LASAI. KEZKATU GABE ...** Zuri zer axola zaizu ba, 1.982. urtean, aurtten, inpuestoak eta zergak goratu egin behar dizkizutela-eta. Langileei, inpuestoaren kontura, kentzen eta gordetzen dieten jornaleko dirua Espainol Estatuak bere polizia eta militarrentzat arma gehiago erosteko erabili behar duela, OTAN barrenean sartzeko, yankien epurtzuloak limiskatzeko ... Eta zuri zer axola zaizu! Zu lasai. Zuk horrela jarrai.



**ZUK HORRELA JARRAI. LASAI, LASAI. KEZKATU GABE.. MILIOI BAT ETA BEDERATZIREHUN MILA LANGABETU (1.900.000)** daudela Espainian, TVE-k esan duen bezala; eta zuri zer axola zaizu? Gainera, zenbaki hori, numero hori gezurra da, zeren eta lanik gabe daudenak **bi milioi eta erdi** baino gehiago baitira (2.500 000), eta laster hiru milioitara ere ailegatuko da. Baina zuri zer, ergeldua baldin bazau-de! 1977. urtean 700.000 langabetu omen zeuden, eta orain 1.900.000, (gobernuaren datuak erabiliz) eta bitartean. Monkloako Itunak edo Paktoak, eta AMI, eta ANE zeudelarik.

Bai; Pakto eta ANE eta Madrileko saltsa guzti horiek lanbide berriak sortzeko jarri omen zituzten baina badaezpada ere langileen bizkar eta hauen poltsikotik dirua ateraz jarri zituzten, eta azkenean ez lan gehiago, ez deus, langile gehiago kalera ... baina zu lasai. Zuk horrela jarrai Lasai.



**ZUK HORRELA JARRAI. LASAI, LASAI. KEZKATU GABE ...** Euskadin goardia zibilak, Polizia eta Ejerzitoa euskaldunaren ehizan dabiltzala, erbi ehizan bezala, jo tiroa hemen eta bat seko, jo tiroa han eta berdin, zakurrak ere ez zaizkie falta, beraiek hortarako aski ez balira bezala, Leitzan eta Errenderin egin dute hori azkenaldi honetan, baina zu lasai, zuri zer axola zaizu ba! Gainera, epaikariek, juezak ere ez die zigor haundirik sartzen goardia zibilei, nahiz eta HBko kontzejal bat tiroz garbitu, edo neska ekologista Tuteran seko utzi. Itxurak egin eta hiltzailea kanpoan ... Baina zuk horrela jarrai. Lasai.



**ZUK HORRELA JARRAI. LASAI, LASAI. KEZKATU GABE ...** Komisarietan eta Goardia Zibilen Koartelatan hiltzeraino torturatzen dutela Erreforma neofrankista honetan, Madrilen Arregi euskal iraultzailea erahilez, eta Almerian beste hiru gizaseme garbituz, baina zu lasai, zure etxean trankil egon, ez dira zure senideak. Eta Lege Antiterrorista mixerable horri esker 740 euskaldun detentituak izan direla joan den urte honetan (horrietatik 150 naparrak dira) ... Baina zu lasai. Zergatik larritu!





**ZUK HORRELA JARRAI. LASAI, LASAI. LARRITU GABE ...** Zuri ez zaizu axola lantegiak ixten ari direnik, errestrukturaketak eta expedientek eta erregulazioak fabrikaz fabrika, gelditu gabe, aurrera doazenik Nafarroako lantegietan (Potasas, Victorio Luzuriaga, Motor Iberica, Onena, Limpiezas el Sol, Limpiezas Garayalde, Torfinasa, Super Ser, Prenasa, Piher, Agni, Curtidos, Renolit, Salcedo, Ubarmin, Industrias Esteban, eta majina bat gehiago). Eta egunez egun lanik gabe daudenen artaldea haunditzen ari denik ez zaizu inporta ... Zuk horrela jarrai. Lasai.



**ZUK HORRELA JARRAI. LASAI, LASAI. KEZKATU GABE ...** Nahiz eta betiko kazike eta jauntxoak nahi dutena egiten segitu, inork konturik eskatu gabe, nahi dituzten lapurretak eta korrupzioak eginez. Ez kezkatu mesedez DEL BURGO jaunak (izen hori merezi ote du?) Diputazioan eta Parlamentu Foralean segitzen badu ere, PSOE-ren laguntza zerriari esker, FASA lantokian milioi asko ebatsi arren. Ez kezkatu ere GURREAK, Del Burgoren morroiak, Parlamentu Foralean eta Burlatako Udaletxean jarraitzen badu ere, PSOE-ren laguntzarekin noski, nahiz eta Burlatako herriaren dirua bere mesedetarako erabili. Zu lasai egon, ez kezkatu. Nahiz eta Aizpun eta Basterrak beren aukietan jarraitu Instituzioetan, FICONASA lantegian alukeria eta Caseda herriaren terrenoetan beste hainbeste alukeria egin, zu lasai egon.



**ZUK HORRELA JARRAI. LASAI, LASAI. KEZKATU GABE ...** ehundaka euskaldun preso baldin badago ere Espainiako garzeletan; eta Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokatu diren gazte horiek egunero, minutuero, segunduero, oraintxe bertan ere, **paper hau irakurtzen ari zaren momentu honetantxe ere txikituak, zigortuak, ez lo eta ez jan, kajoi baten tamainako kalabozo hotzetan sartuak, umilatuak, beren gizontasuna eta euskaltasuna desegiteko tortura latzetan ebakiak baldin badaude ere, zuri zer.** Eta gainera euskaldun horiek (naparrak eta gipuzkoarrak, bizkaitarrak eta arabarrak) sofritzen ari diren guztia, ematen dizkieten jipoi guztiak eskarmentu bezala dira, zu beldurtu eta ikaratu zaitezten, zu, hemen, zure etxean zauden hori, geldirik eta isilik egon zaitezten, gure presoen alde hasi ez zaitezten. Baina zuk horrela jarrai. Lasai, lasai.



**ZUK HORRELA JARRAI. LASAI, LASAI. KEZKATU GABE ...** Zuri ez zaizu axola Nafarroako kazike eta jauntxoek, PSOE-ren laguntzarekin, Erriberako komunal edo jende guztiaren terrenoak aberats batzuren eskuetara bakarrik pasatu nahi badituzte ere, jendeari terrenoak, herriaren lurrak, kendu nahi badizkiete ere, eta hori gainera **lege baten bidez egin nahi dute**, Nafarroako Parlamentu Foralean aprobatutako lege baten bidez lapurtu behar dizkiete pobreei lurrak. Horiek dira nabarrista aluak, faltsuak, lapurrak, pobreen bizkar jaten dutenak ... Baina zu lasai. Ez apuratu.



**ZUK HORRELA JARRAI. LASAI, LASAI. LARRITU GABE ...** Zuri ez zaizu axola PSOE-ko langile-saltzailak, aberri-saltzailak, bere hitza ez badute betetzen, txamarretaz sastreak

baino gehiago aldatzen badira, gauza bat esan eta beste bat egiten badute, ikurriña kentzen badigute, gure hizkuntza, gure euskara poliki, poliki, azeriaren modura ito nahi badigute. Bai, PSOE-koak, bai, Cadreita herriko auzian eskuindarrekin bat egin dute pobreei lurrak ez emateko Bai, PSOE-koak bai; horiek nahiago dute eskuindarrenarekin eta espainolarekin elkartu (UCD eta UPN-ekin) euskaldun ezkertiarrekin elkartu baino ... Baina zu lasai, zertarako apuratu



**ZUK HORRELA JARRAI. LASAI, LASAI. KEZKATU GABE ...** Nekazariak eta baserritarrak engainatuak eta explotatuak daudela, eta zer! Zuri zer axola zaizu inpuetoz josita baldin badaude, makinaria eta tresneria garesti eta beren generoa eta produktuak merke badaude, prezio lotsagarrietan saldu behar badituzte kopetako izerdiaz ateratako generoak. Baina zuri zer, zu lasai.



**ZUK HORRELA JARRAI. LASAI, LASAI. LARRITU GABE ...** Zuk zer ikustekoa daukazu ba, espresio askatasun, gauzak adierazteko askatasunarekin gezur galanta baldin bada, zerbait gogorra esan eta kartzelaratzen edo kondenatzen bazaituzte, adierazpen askatasunaren jaun ta jabe koarteletako militarrek eta banke-txetako bankeroak baldin badira. Zu lasai, ez zaizu axola, militarren botak pausoa markatzen hasten direnean orduan askatasunak eta hitzak sobra dira. Eta bertarago etorritz, Nafarroako Parlamentu Foralean lau aldiz debekatua izan da, PSOE-ren bo-

toei esker, Bardenas-etako Tiro Zelaiaz mintzatzea, militarrek haserretu litezkeela-eta. Ongi dakizu, Tuterako Bardenas paraje lehor hori egunero bonbardeatzen dutela amerikanoek beren hegazkinekin, eta Nafarroak ezin deus egin, ezin deus esan, PSOE eta antzekoek nahi ez eta uzten ez dutelako.



**ZUK HORRELA JARRAI. LASAI, LASAI. KEZKATU GABE ...** haserretu gabe, mindu gabe, amorratu gabe. DEL BURGO eta ARZA Nafarroako Forua desegiten ari dira orain-txe. Leringo kondeak egin zuen traizioa baino haundiagoa egiteko eririan daude. Nafarroari traizioa. Nafarroaren Foruari traizioa. Madrileko Gobernuko izen gaiztoko Martin Villari saldu egin behar diote oraintxe gure Forua, deusen truke gainera, gal-tzak eratsi besterik ez dute egin "Amejoramiento" deitu horrekin, amejoramentu hitza baino hobe txartzemen-du deitzea navarristek egin dutena. Gamazada baino okerragoa da orain-goa. Foru Eskuratze Osoa eskatu beharrean (hau da, 1.839 eta 1.841 urte-tako karlistada legeak kendu eta Nafarroari bere buruaren jabetasuna eman, 1839 urtean baino lehen zeukan buru jabetasuna) hori egin beharrean, genuen apurra saldu egin digute, autonomia antzeko zerbait jarri behar digute, Nafarroaren historia ahaztuz. Frankok egin ez zuena, Martin Villak egin behar du orain, Del Burgok eta Arzak lagunduta, traidoreen legean. Baina zu lasai, ez kezkatu, nahi baduzu erreztatu egin dezakezu, hortarako ere badituzu PSOE-n apezak, hor dituzu Urralburu, Arbeloa, PSOE-ko apezak, politikan sartuak, gehiago irabaziko baitute hola meza ematen baino, diruari eta haundi-maundiari salduak ... bain zu lasai, ez kezkatu. Lasai.

**ZUK HORRELA JARRAI ETA LATZAK IKUSIKO DITUZU LASTER !!**





**GUK, HB-ko NAPARRAK; ez dugu honela jarraitu nahi.**

**GUK, HB-ko NAPARRAK, ez dugu beso zintzilik egon nahi, etorriko denaren zain.**

**GU, HB-ko NAPARRAK, buru-belarri sartuko gara eta lepo hausten arituko gara hainbeste oker eta abusokeriari aterabide bakarra ematen:**

### **HAUSKETA DEMOKRATIKOA**

**GUK, HB-ko NAPARRAK, neurri gogorrek hartu behar ditugu  
ETA HARTU ERE EGIN DITUGU.**

- **Lehenbizi, Nafarroako HB-ren Batzarreak erabaki du GURE ADISKIDEAK ERRETIRA DAITEZELA DIPUTAZIOTIK ETA PARLAMENTU FORALETIK.**

Oso garbi baitago Nafarroako Diputazioa eta Parlamentua euskaldunen kontra, napparren kontra eta herriaren kontra ari direla, Espainiako Erreformaren bidetik. PSOE-k UCD eta UPN-kin egin duen pakto edo ituna ikusi eta konprobatu ondoren ez dago zer eginik Parlamentu Foralean, eta berdin gertatzen da Diputazioan, edo okerrago. Toki horietan segitzeak, euskaldunen kontra jo eta ke ari dire-

nei mesede egitea da, sinestasan demokratikoa ematea hitz batez. Espainol Estatuari Frankoren bedeinkazioa ematen segitzea. Eta batez ere, Nafarroak betidanik duen Foruari azken labankada ematen laguntzea izango zen Diputazioan eta Parlamentuan jarraitzea edo, Martin Villari eta Del Burgori eta Arzari labankada hori ematen laguntzea, zorigaiztoko "Amejoramendu" horrekin.

- **Bigarren, Nafarroako HB-ren Batzarreak erabaki du URRENGO ASTEETAN MOBILIZAZIO ETA KONTZIENTZIAZIO KANPAINA GOGORRA AURRERA ERAMATEA.**

Langile jendea kontura dadin zein egoera politikotan gauden. Jendeari, langileei eta nappar herri osoari garbi esan nahi diogu gauden egoera oso latza dela eta behin betikoz Frankismoarekin hautsi behar dugula, hausketa demokratikoa behar beharrezko dugula, eta gogor borrokatu behar dugula. Frankistak lepo leporaino sartuta baitaude Ejerzitoan, Polizian eta

Administrazioan, eta beraiek baitira nagusi, nahi dutena eginez, demokrazia izena ere ankapetik pasatzen dutelarik. Hausketa demokratikoa da aterabidea, eta ate hortatik bakarrik ikus dezakegu Euskadi independente, elkartu, sozialista eta euskaldun baten bidea. Honelako Euskadi bat baita bakar bakarrik gu eta gure seme-alabak zoriontsu eta libre izateko aukera.


• Hirugarren, Nafarroako HB-ren Batzarreak ERABAKI DU HERRIAREN AUTOORGANIZAZIOA ETA AUTODEFENTTSARAKO ERAKUNDE HERRITARRAK DINAMIZATZEA.

Herriz herri, auzoz auzo, baserriz baserri, lantegiz lantegi jende guztia elkartu egin behar dugu. Indarrak bildu, elkarri lagundu eta organizatu libre izan nahi dugun gizonezko eta

emakumezko guztiak. Honela egiten badugu eskuindarrek eta kolpezaleek ez gaituzte bentzituko, garaituko. Guk irabaziko dugu.

**EUSKADI EZ DA ERRENDITZEN! EUSKADI INDARREAN  
EUSKADI INDARREAN DA!!  
ETA NAPARRAK EZ GARA ATZEAN GELDITUKO!!  
HEMEN GAUDE!!  
IRABAZIKO DUGU!!**

**ETA  
ZU ...**



**Nafarroako Herri Batasuna**

**ZER EGIN BEHAR DUZU ESPAINOL ESTATUAREN FRANKISMO ZERRIARI AURRE EGITEKO?**

**HORRELA JARRAITU BEHAR DUZU, LASAI, LASAI; KEZKATU GABE, ZURI DEUS PASATUKO EZ ZAIZULAKOAN?**

**ALA ZURE HERRIKIDEEKIN ETA LANKIDEEKIN BAT EGINEN DUZU BORROKAN ARITZEKO?**

**PENTSA EZAZU. Baino lehenbai-lehen. BIHAR BERANDU IZANEN DA.**

**Nafarroako Herri Batasunaren kontseilu bat da.**